



631/2009 Ebazpena, apirilaren 21koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, agindua ematen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko D.1 lanbide-taldeko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hutsik dauden lanpostuena eta ordezkapenena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez (EHAA 198 zk, 2008ko urriaren 16koa), egokitu egin da aldi baterako pertsonal estatutarioa Enteko zerbitzu-erakundeetan sartzeko sistema arautzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakia, 2006ko Lan Eskaintza Publikotik eratorritako aldi baterako kontratazio zerrendak prestatzekoa dena.

Zerrenda berriak 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiak araututako irizpideen arabera ordenatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren abenduaren 16ko 1510/2008 Ebazpenaren bidez, Osakidetza web orrian D.1 lanbide-taldeko (administrazio-laguntzaile kategoria izan ezik) behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.


Aipatutako aldi baterako zerrenden inguruko erreklamazioak aztertuta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko web orrian argitaratzea D.1 (Teknikari Laguntzaile Sanitarioak) lanbide-taldeko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, interesa duten izangaiek hilabeteko epea izango dute ebazpen hau argitaratu den egunetik hasita, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari gora jotzeko errekurtoa jartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 21a



**Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria
JOSE ANDRÉS BLASCO ALTUNA**



736/2009 Ebazpena, apirilaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, agindua ematen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko administrari-laguntzaile kategoriako (D.2 lan-taldeko) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hutsik dauden lanpostuena eta ordezkapenena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez (EHAA 198 zk, 2008ko urriaren 16koa), egokitu egin da aldi baterako pertsonal estatutarioa Enteko zerbitzu-erakundeetan sartzeko sistema arautzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakia, 2006ko Lan Eskaintza Publikotik eratorritako aldi baterako kontratazio zerrendak prestatzekoa dena.

Zerrenda berriak 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiak araututako irizpideen arabera ordenatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren abenduaren 22ko 1529/2008 Ebazpenaren bidez, Osakidetza web orrian administrari-laguntzaile kategoriako aldi baterako kontratazio behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

Aipatutako aldi baterako zerrenden inguruko erreklamazioak aztertuta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko web orrian argitaratzea administrari-laguntzaile kategoriako (D.2 lan-taldeko) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, interesa duten izangaiek hilabeteko epea izango dute ebazpen hau argitaratu den egunetik hasita, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari gora jotzeko errekurtsoa jartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 22a

 Osakidetza
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

**Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria
JOSE ANDRÉS BLASCO ALTUNA**



737/2009 Ebazpena, apirilaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, agindua ematen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko D.3 lan-taldeko (teknikari laguntzaile profesionalak) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hutsik dauden lanpostuena eta ordezkapenena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez (EHAA 198 zk, 2008ko urriaren 16koa), egokitu egin da aldi baterako pertsonal estatutarioa Enteko zerbitzu-erakundeetan sartzeko sistema arautzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakia, 2006ko Lan Eskaintza Publikotik eratorritako aldi baterako kontratazio zerrendak prestatzekoa dena.

Zerrenda berriak 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiak araututako irizpideen arabera ordenatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren abenduaren 16ko 1510/2008 Ebazpenaren bidez, Osakidetza web orrian administrari-D.3 lan-taldeko (administrari-laguntzaile kategoria izan ezik) aldi baterako kontratazio behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.


Aipatutako aldi baterako zerrenden inguruko erreklamazioak aztertuta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko web orrian argitaratzea D.3 lan-taldeko (teknikari laguntzaile profesionalak) aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, interesa duten izangaiek hilabeteko epea izango dute ebazpen hau argitaratu den egunetik hasita, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari gora jotzeko errekurtoa jartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 22a



**Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria
JOSE ANDRÉS BLASCO ALTUNA**



657/2009 Ebazpena, apirilaren 21koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, agindua ematen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko E lanbide-taldeko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hutsik dauden lanpostuena eta ordezkapenena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez (EHAA 198 zk, 2008ko urriaren 16koa), egokitu egin da aldi baterako pertsonal estatutarioa Enteko zerbitzu-erakundeetan sartzeko sistema arautzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko Erabakia, 2006ko Lan Eskaintza Publikotik eratorritako aldi baterako kontratazio zerrendak prestatzekoa dena.

Zerrenda berriak 2008ko maiatzaren 29ko Erabakiak araututako irizpideen arabera ordenatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren abenduaren 16ko 1511/2008 Ebazpenaren bidez, Osakidetza web orrian E lanbide-taldeko behin-behineko zerrendak argitaratu ziren, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.


Aipatutako aldi baterako zerrenden inguruko erreklamazioak aztertuta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko web orrian argitaratzea E lanbide-taldeko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, hain zuzen ere lanpostu hutsena eta ordezkapenena.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, interesa duten izangaiek hilabeteko epea izango dute ebazpen hau argitaratu den egunetik hasita, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari gora jotzeko errekurtsoa jartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 21a



**Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria
JOSE ANDRÉS BLASCO ALTUNA**

